

Gerra Zibilean fusilatuta hil zituztenei omenaldia egingo diete gaur kanposantuan

■ Gernika Deialdiak antolatu du omenaldia ■ Eguerdiko 13:00etan izango da, hilerrian.

GERNIKA Deialdiak Gerra Zibilean fusilatuta hil zituztenei omenaldia egingo die gaur Hernaniko hilerrian. Ekitaldian haritz bat aldatuko da fusilatuen omenez eta garai hartan pasatakoaren berri emango dute. Fusilatutako batzuen senitartekok ere parte hartuko dute gaurko omenaldian.

Gorputz asko

Hernanin asko dira fusilatuta lurperatuak, baina, inork ez daki seguru zenbat. Esan izan da 209 daudela, baina, gehiago ere izan litezke Iñaki Egaña historialari eta Gernika Deialdiko partaideak esan duenez. Hilerrira sartu eta eskubi aldean daude lurperatuta gorputzik gehienak, fusilatuen aldeko monumentua dagoen horretan. Fusilamentuen ingurukoak ikertzeko prozesua martxan dago Hernanin eta beste zenbait herritan. Euskal Herrian 5.500 inguru dira fusilatuta hildakoak.

Ekitaldiak herriz herri

Gernika Deialdiak gertakari garrantzitsuenak gertatu diren Euskal Herriko zazpi probin-



Fusilatuen omenezko oroigarria Hernaniko hilerrian, fusilatutako lurperatuta dauden tokian.

tziatiko zazpi herritan egingo ditu gaur ekitaldiak. Xuberoan, Mithikilen; Lapurdin,

Saran; Araban, Gasteizen, Maiatzak 3 plazan; Nafarroan, Amaiurren; eta Bizkaian, Ar-

boledan. Gipuzkoan Hernanin egingo du, hilerrian bertan, eguerdiko 13:00etan. □

■ WATERPOLOA

Dena eman beharreko sei partidu

MUTILEN lehen taldeak 6 partidutan jokatuko du lehen mailan segi edo mailaz jeitsi. Sei talde daude jeitsierako play off horietan, eta hiru jeitsiko dira eta batek promozioa jokatu beharko du. Lehenengo partidua gaur dute, 13:00etan kiroldegian, Deportibo Bilbaoren kontra. □

■ ERRUGBIA

Hernani eta Atletiko gaur Aieten

HERNANI goiko postuei eustera joango da gaur Donostira. Partidua eguerdiko 12:00etan dute Aieten, Atletiko SSren kontra. □

■ PELOTA

Bi partidu gaur 22 urtez azpiko txapelketan

BI partidu jokatuko dituzte gaur kiroldegian 22 urtez azpiko txapelketan. Oier Mendizabal hernaniarra Azaguirre lagun duela Landa Jauregiren kontra neurtuko dira eta Ioritz San Sebastian hernaniarra Mendizabal zaldibiarrekin Vicente Torres arabarren kontra. Partiduak 11:00etan hasiko dira eta sarrera deialde da. □

■ ATLETISMOA

40garren Adarraga Memoriala gaur

LANDAREN jokatuko da gaur 40garren Adarraga Memoriala krossa, goizeko 10:30etan hasita. Probak alebin eta infantil mailako gazteentzat dira. CDHko atletismo sailak antolatzen du Memoriala. □

Txotx tenporadaren hasiera ofiziala

GAUR emango zaio hasiera ofiziala aurtengo txotx garaia. Goizeko 11:30etan, Gudarien Plazan. □

Ixabel Aristimuño ongi etorria jaso zuen atzo Tilosetan, herritik kanpora 27 urte egin eta gero

IXABEL Aristimuño 27 urte egin ditu erbestean, eta beste hainbat Euskal errefuxiatu bezala, herrira bueltatu da. Atzo ongi etorria egin zitzaion Tilosetan, eta gero manifestazioa eta herri afaria izan ziren. Ongi etorrian, Tiloseta jendez gainezka egon zen eta herriko zenbait taldek opariak egin zizkioten Aristimuñori.

Bukaeran Aristimuño hitz egin zuen. Esan zuen ez zuela hainbeste urte eta gero herria horrela ikustea pentsatzen, gauzak konponduak ikustea espero zuela, baina, aurrera segi behar dela gaineratu zuen.

Ekitaldian, oraindik kanpogan dauden Hernaniko errefuxiatuak gogoan izan zituzten. □



Ixabel Aristimuño atzo, Tilosetan hitz egin zuen momentuan.


Hernaniko Kronika
intemetan
dobera.com
helbidean

**ARALAR
TABERNA**
Zapa 8 - Tel.: 943 33 15 06 -

AMEGAR
etxe tresnak
altzariak
amegar.net
Bisita ezazu gure web orria
eta ikusi gure eskeintza.
www.amegar.net
Txirrita kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxe 943 551603

**INFORMATIKA ARETOKO
IKASTAROAK**
Macromedia Dreamweaver 4.0
Otsailaren 10-tik 14-ra
WINDOWS 98 + WORD 2000
Otsailaren 17-tik 21-ra
EXCEL 2000
Martxoaren 3-tik 7-ra
ACCESS 2000
Martxoaren 17-tik 21-ra
WINDOWS 98 + INTERNET
Martxoaren 15-tik Apirilaren 5-ra
Informazioa:
Larramendi 11, behera. Tlf: 943 551000
Ordutegia: 15-tik 21.30-ra. (larunb.:9-tik 14-ra)
Hernaniko Osasun eta
Gizarte Ongintzarako
Udal Patronatua
Europako
Gizarte
Fondoa

SANTA BARBARA
PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 -Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu
● R-Megane Coupe Sport 1.4 SS-BJ
● Peugeot 306 - XS A.A., Ilantak SS-BF
● Seat Ibiza - Diesela 3 ate SS-AJ
● Opel Corsa 1.2 5 ate SS-AK
● Seat Ibiza - 1.2 5 ate SS-AM
● Renault Express Diesela SS-AS
● Lada Niva SS-AP
● Land Rover - diesela SS-P
● Land Rover - kaja, disesela SS-AF
.....eta hainbat kotxe merke.



Lau sarituak saihestetan eta Manu Loinaz Txantxangorriko presidentea erdian, ostiralean, sariak banatu ondoren.

Ostiralean banatu zituzten ehizeko trofeoak Txantxangorri. Txantxangorriko 24garren ehiza txapelketako sariak banatu zituzten joan den ostiralean. Larogei bat lagun, ehiztari eta juez, elkartu ziren afaltzera eta afal ondoan eman zituzten sariak. Aurtengo irabazlea Iñaki Loiarde izan da; bigarren, Juan Mari Ugalde; eta hirugarren, Emilio Crespo. Gazteen mailan, berriz, Ibai Artola izan da irabazlea. Lau ehiztari hauek daukate zonaldeko txapelketan parte hartzeko aukera, otsailaren 1ean, Adarra mendian. Ibai Artola min hartuta dago, ordea, eta bere partez hurrengo sailkatuak, Mikel Arrietak, hartuko du parte.

JASOTA BEZALA

Erantzuna, eta azkena
Lehenik nire aldetik azken asteetan publikoan eraman izan dugun eztabaida amaitutzat ematen dudala adierazi nahi dut.

Bigarren, urte batzuk badi-tuzten hernaniarrek jakin badakite zaharren egoitza beti izan dela gatazka gune, urte luzez hamaika izan baitira bertan sorturiko iskanbilak. Edozein izanda ere bere kolore politikoa, ez da izan lehendakariarik ez legegintzadirik bake garairik ezagutu duenik.

Hirugarren, "gaitz guztien iturburu den lehendakari honek" zera adierazi nahi du: egungo egutegiak eta oporren sistema langileen proposamenez, zuen proposamenez, 1994. urtetik indarrean daudenak direla eta lanpostu berriei dagozkienak 2000. urtean enpresa eta langilegoaren ordezkartzaren arte-

an kontsentsuz onarturikoak direla. Kompensazioei dagokionez, 1983. urtetik aplikatzen dira gaur egun aplikatzen diren modu berean.

Laugarren, ez dut inongo momentutan esan egoitza arazorik ez dagoenik (nahiago nuke) baina garbi dut, agintariak aldatuta ere arazok bertan iraun baldin badute, nik behintzat zer pentsatua izango nukeela. Ez ote da izango arazorik larriena zein den eta non dagoen ez duzuela topatu? Noiz-behinka autokritika egitea ona eta egokia izaten da.

Bosgarren, ez dut jarrera biktimistetara jo, ez eta jotzeko asmorik. Pertsonalki ez dut beldurrik, zuek biak bezalako tropa oso bat jasateko tenplea badut. Gauza bat garbi dut, ez naizela inongo momentutan zuen "titere" bilakatuko, ez baikin horretarako

aukeratuak izan. Baina beldur naiz, gezurra, panikoa dut, zuen estrategiak langileen artean eta zerbitzuan bertan sortzen dituen eta aurerantzean sor ditzakeen ondorioengatik. Panikoa bai.

Azkenik, publikoki adierazi nahi dut beti bezala edozertarako prest naukazuela, langileen batzarren aurrean egin bezala edo eta langileen ordezkartzarekin astelehenean azken aldiz egin genuen bezala, biltzeko eta arazoei soluzioak bilatzeko. Edo nahiago baduzue bakarka, zuekin, publikoan edo ezkutuan (lehenago behin baina gehiagotan egin dugun bezala), begirunez eta errespetuz, beti egin ohi dudana bezala.

Imanol Beroitz
Ongizate Patronatuko
Lehendakaria

UDAL INFORMATIKA ARETOA

Informatika ikastaroak

UDAL informatika aretoak bost ikastaro emango ditu, gazteleraz. Hernaniko eta Astigarragako jendearentzat 36,55 euro balio dute ikastaroak eta besteentzat 73,69 euro. Ikastaroak astelehenetik ostiralera izango dira, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Interneteko ikastaroa ez, larunbatetan izango baita, goizeko 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago 943 551000 telefonoan, 15:00etatik 21:30etara.

IKASTAROKAK

- Dreamweaver 4.0, otsailaren 10etik 14ra.
- Windows 98+word 2000, otsailaren 17tik 21era.
- Mikrossoft Excel 2000, martxoaren 3tik 7ra.
- Microsoft Access 2000, martxoaren 17tik 21era.
- Windows 98+internet, martxoaren 15, 22, 29 eta apirilaren 5ean.

LUBER

BIDEODENDA

Kardaberaz kalea 3, Hernani
Tlfna: 943 33 50 48
Mobila: 635 71 72 12 (24h)

- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)
- Marrazki bizidunak, Zinekluba...
- Sandwich hotz eta beroak
- Goxoki eta litxarkeriak

Aukera bereziak Otsailaren 3 arte

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 dohan
- 30koagatik 20 dohan

Ordutegia
Astelehenetik igandera
11:30etatik 21:00etara

Zabaldu berria



Jon Garmendia txapelarekin kantari eta beste bertsolariak atzean.

Jon Garmendia 'Txuriya'rentzat 9garren tabernetako bertsolari txapelketa

OSTIRAL gauean jokatu zen Garin tabernan *Tabernetako Bertsolari Txapelketa*. Aurtengoa 9garren edizioa da eta Jon Garmendia *Txuriya* jantzi du txapela bigarrenkoz. Urteroko moduan Garin taberna lepo bete zen eta gozatu bat hartu zuten bai entzuleek eta bai bertsolariek. Saioa goizeko 02:00ak pasatxoan bukatu zen, baina, handik aurrera ere izan omen zen tabernetako bertsolari pranko Hernanin barrena. □

FUTBOLA -GORENGO MAILA

Hernanik ondo jokatu baina galdu

AZKOITIAN 2-0 galdu zuen atzo Hernanik Anaitasunaren kontra, punturen bat gutxienez merezi izan zuen partidu batean. Hernanik aukera asko izan zituen gola egiteko, baina, efektibitatea etxeokoen izan zuten: 2 aldiz golera botata 2 sartu zituzten; zerbaitegatik dira 3garren mailara igotzeko burrukan dabil-tzanak. Hernani, atzo galdu arren, joku ona ari da egiten azken partiduetan, baina, golak sartzeko zailtasun gehitxo dute. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia 24 ☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

Lizeaga kale inguruan GARAJEA erosiko genuke. Deitu: 609 543 900

Helduen Hezkuntza Ikastetxea

BIGARREN LAUHILABETERAKO MATRIKULA ZABALIK
Urtarrilaren 20tik 31arte-Astelehenetik ostiralera
10etatik 12ak arte eta 5etatik 7ak arte

■ HASTAPEN KLASEAK.-

- Umeak eskola adinean dituzten gurasoentzat laguntza:
 - Matematikako ezagupenak 12 aste- 3 ordu astean
 - Matematikako hiztegia euskaraz 8 aste- 3 ordu astean
- Euskara (euskalduntze eta alfabetatze) 16 aste-4'5 ordu astean.
- Ingelesa 16 aste-3 ordu astean.
- Gaztelania atzerritarrentzat 16 aste- 4'5 ordu astean
- Zer da "zientziak demostratu duelako" kontu hori? 8 aste-2 ordu astean

- Informatika:

- Ordenadorearen oinarriko erabilpena 16 aste-4'5 ordu astean
- WINDOWS sistema eragilea 8 aste-3 ordu astean
- WORD 8 aste-4'5 ordu astean
- Internet/Posta elektronikoa 8 aste-3 ordu astean.

■ FORMAKUNTZA OROKORRA (euskaraz ala gaztelaniaz):

- Idazten edo irakurtzen ikasi.
- Zure irakurketa, idazketa eta kalkulua hobetu.
- Zure ezagupenak eguneratu.
- Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu.
- 25 urtetik aurrera dituztenentzat unibertsitaterako sarrera frogaren prestakuntza.
- Goi Mailako moduluetarako sarrera frogaren prestakuntza...

HERNANI: Antziola 62 943335318 TF943335247Fax
012076aa@hezkuntza.net